



Karta irekia gure anai-arreba errefuxiatuei Ongi etorri!

Azken asteetan zuen aurpegietako sufrimenduzko eta etsipe-
nezko irudiek kolpatu eta hunkitu egin gaituzte. Suntsiketarik eta
miseriatik alde egiteko bide luze eta gogorra ari zarete egiten.
Sumindu eta haserrez bete gara poliziak nola kolpatzen zintuzten
ikustean edo Europa "zibilizatuko" gobernuek baldintza misera-
bleetan plazetan, tren geltokietan eta alanbradaz inguratutako
guneetan, janari eta urik gabe, osasun harretarik gabe, aterpe
duinik gabe, pilatu zaituztenean. Errealitate anker honek gure familien historia gogora-
razten digu, gure aitona-amona asko dikta-
dura frankistatik ihes eginez erbestera joan
zirenekoa. Leporaino beteta zeuden
itsasontzietan edo ilara amaigabeetan
umeekin, gosearekin, hotzarekin... ibili
ziren zuek bezala. Milaka hil ziren kontzen-
trazio esparruetan.

Ondo ezagutzen ditugu basakeria honen
arduradunak. Rajoy, Merkel, Cameron eta
gainontzeko agintari europarrak dira zuen
etxeak, zuen ospitaleak eta ikastetxeak,
zuen hiri eta bizitzak suntsitzen dituzten
gerrak babestu eta finantzatzen dituztenak.
Gure herrietan hezkuntza, osasuna eta
eskubide sozialak suntsitzen urteak dara-
matzaten berberak dira, beren etxeetatik
milaka familia kaleratu dituztenak, langa-
beziara kondenatzen gaituztenak eta
hemen kentzen diguten etorkizun hobe
baten bila atzerrira joatera behartzen
gaituztenak. Kapital handien, banku
handien, multinazional handien eta armen industriaren zerbitzura
dauden gobernuak dira. Prest daude sufrimendu latz hau guztia
eragiteko, horrekin beren irabaziaz handitzen badituzte. Telebista
kameren aurrean sarraski honekin larrituta daudenaren itxura
egiten dute, baina beraiek dira zuen sufrimenduaren amesgaiztoa
sortu dutenak.

Beraiek dira bizi duin baterako zuen bidean oztopoak jartzen
dituztenak. Kapitalismoak harresiak eta alanbradak eraikitzen ditu,
mugak itxi, xenofobia, arrazismoa eta beldurra astindu. Baina

honek guztiak ez du zerikusirik gurekin, Europako gazteriaren,
langileen eta zapalduen gehiengoarekin. Guk ongi etorria ematen
dizuegu, gure eskua eta bihotza luzatzen dizkizuegu, eta gure
erabateko elkartasuna duzuela adierazten dizuegu.

Ondo dakigu zein iritzi duen PPren gobernuak zuetaz eta gutaz.
Aukera baten bila datozenei jartzen dizkieten hesiak, Mediterra-



neoko uretan lurperatuak diren milaka
hildako, sarekada arrazistak, espetxeak
diruditen etorkinentzako zentroak,
zapalkuntza handiena, egunero gogoraz-
ten dizkigute. Horregatik, nazkatuta gaude
gobernu honek erabiltzen duen demago-
giaz, "kupoez" hitz egiten duenean, denok
ez gara kabitzen esaten dutenean, milaka
errefuxiatuaren artean "yihadistak" sartzen
direla adierazten dutenean. Nahiko da!
Hemen soberan dauden gauza bakarrak
xenofobia eta arrazakeria dira! Gobernu
honek eta interes kapitalista eta inperialis-
ten zerbitzura dauden gobernu guztiek
bultzatzen dituzten gizateriaren aurkako
legeak eta errepresioa dira soberan daude-
nak. Oso garbi dugu gure arazoak ez direla
kanpotik etortzen, ez dituzte sortzen ez
pateretan datozen etorkinek eta ezta Euro-
para iristeko bizia jokatzen duten errefuxia-
tuek ere.

Ikasle Sindikatutik bitzita duina defen-
datzen dugu basakeriatik ihes egiten ari
diren guztientzat, mundu guztiko gazte eta langileen alde defen-
datzen dugun bezala. Bankuak salbatzeko erabiltzen diren baliabi-
de guztiak errefuxiatuak hartzeko izan daitezela, ogia, aterpea,
etxebizitza, osasuna eta hezkuntza bermatzeko Europar bizi garen
guztiantzat. Badago nahikoa baliabide eta gizartea antola daiteke
beste modu batean, justizia sozialarekin, zapalkuntzarik gabe,
biolentziarik gabe. Ongi etorria eman eta honakoa esaten dizuegu:
gure erabateko elkartasuna duzue, eta zuei esker gizartea eral-
datzeko eta kapitalismoarekin amaitzeko borrokaren indarra bikoi-
ztu egingo dugu.

Antolatu batzarrak institutoan edo unibertsitatean errefuxiatuen aldeko komitea sortzeko

Banatu karta hau zure ikaskide eta irakasleei, eta zabaldu beste ikastetxe batzuetara

Jarri kartelak eta pankartak ikastetxean, ikasgelan, ateetan, zure auzoan...

Antolatu mahai informatiboak

Kupo eta murrizketarik ez! Etxe kaleratzeen, gerren eta basakeriaren gobernu kanpora!

Refugees Welcome!



Carta abierta a nuestros hermanos y hermanas refugiados

En las últimas semanas las imágenes del sufrimiento y la desesperación en vuestros rostros, tras el largo y tortuoso camino que habéis realizado para huir de la destrucción y la miseria, nos han golpeado y conmocionado. También nos hemos indignado, y llenado de rabia, al ver como la policía os ha golpeado, y como los gobiernos de la Europa "civilizada" os hacían en condiciones inhumanas en plazas, estaciones de tren o espacios rodeados de alambradas, sin comida ni agua, sin asistencia médica, sin un cobijo digno. Esta cruel realidad nos recuerda la historia de nuestras propias familias, cuando muchos de nuestros abuelos huían de la dictadura franquista hacia el exilio, en barcos abarrotados o en colas interminables con niños, con hambre, con frío, condenados a permanecer en campos cercados donde miles morían.

Conocemos muy bien a los responsables de esta barbarie. Son Rajoy, Merkel, Cameron y el resto de dirigentes europeos que apoyan y financian las guerras que destruyen vuestros hogares, vuestros hospitales y escuelas, vuestras ciudades y vuestras vidas. Los mismos que llevan años destruyendo la educación, la sanidad y los derechos sociales más esenciales en nuestros países, que desahucian a miles de familias de sus viviendas, que nos condenan al desempleo y nos obligan a emigrar en busca de un presente y un futuro del que nos privan aquí. Son gobiernos al servicio de los grandes capitales, de los grandes bancos y de las grandes multinacionales, de las industrias de armamento, dispuestos a provocar todo este inmenso dolor si con ello acrecientan sus beneficios. Hipócritamente lloran lágrimas de cocodrilo cuando les enfoca alguna televisión, pero son ellos los que han creado la pesadilla de vuestro dolor.

Ellos son el obstáculo que se interpone en vuestro camino hacia una vida digna. El capitalismo levanta muros, alambradas, cierra fronteras, atiza la xenofobia, el racismo y el miedo. Pero todo esto no tiene nada que ver con nosotros, con la inmensa mayoría de la

juventud y de los trabajadores, de los oprimidos de Europa. Nosotros os damos la bienvenida, os damos nuestra mano y nuestro corazón, y os decimos que contáis con nuestra solidaridad incondicional.

En el Estado español sabemos muy bien que opina el gobierno del PP de vosotros y de nosotros. La vallas llenas de cuchillas con



las que se recibe a los que cruzan el Estrecho en busca de una oportunidad, los miles de muertos sepultados bajo las aguas del Mediterráneo, las redadas racistas, los centros de internamiento, la explotación más brutal, nos lo recuerda todos los días. Por eso estamos hartos de escuchar la demagogia de un gobierno que habla de "cupos", de que aquí no cabemos todos, de que entre los miles de refugiados se infiltran "yihadistas" ¡Basta ya! Aquí sólo sobran la xenofobia y el racismo, las leyes inhumanas y represivas alentadas por este gobierno y por todos los gobiernos al servicio de los intereses capitalistas e imperialistas. Tenemos muy claro que nuestros problemas no vienen de fuera, ni los provocan los emigrantes en patera o los refugiados que se juegan la vida llegando a las fronteras de Europa.

Desde el Sindicato de Estudiantes defendemos una vida digna para todos los que huís del horror, como la defendemos

para todos los jóvenes y los trabajadores del mundo. Que todos los recursos que se malgastan para salvar bancos se dediquen a acoger a los refugiados, y garantizar el pan, el techo, la vivienda, la sanidad y la educación para todos los que habitamos Europa. Hay medios suficientes y la sociedad se puede organizar de otro modo, con justicia social, sin explotación, ni violencia. Os damos la bienvenida y os decimos: contáis con nosotros y con nuestra solidaridad inquebrantable, y gracias a vosotros redoblabamos las fuerzas en la lucha por transformar la sociedad y acabar con el capitalismo.

Organiza asambleas en instituto o universidad para formar un comité de solidaridad con los refugiados

Distribuye esta carta a tus compañeros, profesores y hazla llegar a otros centros de estudio.

Coloca pancartas y carteles en un centro, en los pasillos, en el aula, en las puertas, en tu barrio, etc.

Organiza mesas informativas

¡Ni cupos ni recortes! ¡Fuera el gobierno de los desahucios, las guerras y el horror!

¡Refugiados BIENVENIDOS!